



KERIK GABEKO GAZTEAK 2017-2018

Lehiaketarako oinarriak

IRUDI BAT SORTZEKO LEHIAKETA

Kerik Gabeko Gazteak (KGG) ekimenaren barruan, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoko Zuzendaritzak irudien lehiaketa bat antolatu du. Izena emateko azken eguna **2017ko abenduaren 22a** da.

1. XEDEA

Lehiaketan, irudi edo argazki bat sortu behar da: hurrengo atalean aipatzen den gaiarekin lotuta egon behar du, eta gazte jendea izan behar du jomuga.

2. GAIA

2017-2018 ikasturterako gaia "Tabakoa eta Ingurumena" izango da. Norberak sortutako irudiak izan behar dute, editatuta edo ez, eta testu edo eslogan motz bat gehi daiteke, gai hauei buruz: ingurumen-inpaktua, tabakoak sortzen duen kutsadura, kea, zigarrokinak, hondakinak eta abar.

3. PARTE-HARTZAILEAK

Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako DBHko 1. eta 2. gelek parte har dezakete.

4. LANEN EZAUGARRIAK

Irudiek bigarren oinarrian azaldutako gaiari buruzkoak izan behar dute, eta betekizun hauek konplitu beharko dituzte:

- Originalak izan behar dute. Berariaz debekatzen da autoreek egin ez dituzten argazkiak edo irudiak erabiltzea.
- Gela bakoitzak hiru diseinu desberdin aurkez ditzake, gehienez.
- Aurkeztutako irudiak editatzeko, edizio grafikorako edozein programa erabil daitezke, eta beharrezkoa da jpg / jpeg formatuan aurkeztea.

5. LEHIAKETAREN GARAPENA

Lehiakidean parte hartzen duten ikastetxeek lanak bidali beharko dituzte **apirilaren 13an** baino lehen honako helbide honetara

kerik-gabeko-gazteak@euskadi.eus



6. LANEN BALIOESPENA

Epaimahaiak faktore hauek izango ditu kontuan:

- Obrak ekimenaren xedea eta gaia adieraztea.
- Transmititzen den mezua originala izatea.
- Edukiak eta baliabide espresiboak eta artistikoak sormenezkoak eta originalak izatea.
- Kritikoak izatea tabakoaren interesekin eta industriarekin.
- Irudiak, eta —hala badagokio— testuak gazte jendearentzat egokituta egotea.

Epaimahaiak sari guztiak ez emateko eskubidea du, bai eta lehiaketan inor ez saritzekoa ere.

Epaimahaiaren erabakia zehazten den moduan jakinaraziko zaio gela irabazleari. Erabakiaren berri emango zaie ikastetxeei.

7. BUKAERA

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri guztiak onartu beharra dakar.

Aurkezten diren lan guztiak KGGren jabetzakoak izango dira; beraz, KGGk lan horiek zabal ditzake, egokituz jotzen dituen bide eta euskarriak baliatuta, ekimena hedatzeari dagokionez.

Sariak jendaurreko ekitaldi batean emango dira. Ekitaldiaren berri emango zaie ikastetxeei.

8. SARIAK

Aurkeztutako diseinuaren arabera, hiru gela irabazle izango dira; hau da: lurralde historiko bakoitzeko bat..

Sariak maiatzaren 31ean banatuko dira, kerik gabeko astearekin bat egiteko.

Sari hauek izango dira:

- Jarduera ludiko bat gela irabazle osoarentzat.
- Diploma bat saria jasotako gelaren ikastetxerako.
- Parte hartzen duten ikasle guztiek jasoko dute oparia, Euskal Autonomia Erkidegoan saritu duten logoa inprimatuta duela.

Saria onartzeak berekin dakar Osasun Sailari lagatzea lana ustiatzeko eta edozein euskarri edo baliabidetan erreproduzitzeko eskubideak, baita jabetza intelektualaren eskubidea lagatzea ere, eskusibotasunez eta mugagabe, hain zuzen.